

C.- "ESKOLA KIROLA" GATIK:

C¹.- POR "ESKOLA KIROLA":

Prezio publiko hau honako tarifa honen arabera jasoko da:

Haur eta ikasturte bakoitzeko inskripzioa
3.-6.LH..... 125,95€

DBE/RGI jasotzen ari dela egiaztatzen
duen familia bateko haurra
izanez gero..... 31,25€

Haur eta ikasturte bakoitzeko inskripzioa
1.-2. LH..... 40,00€

DBE/RGI jasotzen ari dela egiaztatzen
duen familia bateko haurra izanez
gero..... 10,00€

Tarifa aplikatzeko arauak:

- Programan izena ematen den unean sortzen da ordaintzeko obligazioa.

- Inskripzioaren bidez interesdunak Irungo Udalarari kontu-korrente zenbaki bat emango dio ordainketa helbideratzeko; bertan azaldu behar dute kontuaren titularraren datuak.

- Ohiko ordainketa inskripzioa egitean tarifaren %100ari dagokion hasierako lehen ordainketa baten bidez egin ahalko da, edo, bestela, bi ekarpen eginez: lehena 62,98€ (3.-6. Maila)/20€-koa (1.-2. Maila), inskripzioa egitean; eta bigarrena 62,97€/20€-koa, dagokion ikasturteko urtarrilean. Hobaridun tarifen kasuan, lehen ordainketaren zenbatekoa 15,75€ (3.-6. Maila)/5,00€-koa (1.-2. Maila) izango da, eta bigarrenarena 15,50€/5,00€-koa.

Este precio público se percibirá de acuerdo con la siguiente tarifa:

Inscripción por cada niño/a y curso
3º-6º primaria..... 125,95€

Niño/a cuya familia acredite la percepción del RGI..... 31,25€

Inscripción por cada niño/a y curso
1º-2º primaria..... 40,00€

Niño/a cuya familia acredite la
Percepción del RGI..... 10,00€

Normas de aplicación de la tarifa:

- La obligación de pago nace en el momento en que se formalice la inscripción al programa.

- A través de la inscripción, el/la interesado/a facilitará al Ayuntamiento de Irun un número de cuenta corriente para la domiciliación del pago o pagos donde figurarán los datos del titular de la cuenta.

- El pago ordinario se podrá realizar mediante un primer pago inicial por el 100% de la tarifa al formalizar la inscripción, o mediante dos aportaciones, la primera de ellas por un importe de 62,98€ (3º-6º curso)/20€ (1º-2º curso) en el momento de formalizar la inscripción y la segunda de 62,97€/20€, durante el mes de enero del curso correspondiente. En el caso de las tarifas bonificadas, la cuantía del primer pago ascenderá a 15,75€ (3º-6º curso)/5,00€ (1º-2º

¹ Letra B derogada por la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada en fecha 21 de abril de 2017 (B.O.G. nº 79 de 26 de abril de 2017).

curso) y la segunda a 15,50€/5,00€.²

- Inskribatutako haurren gurasoek hartzen dute ordaintzeko obligazioa.

- La obligación de pago recae sobre los padres/madres o tutores de los/las niños/as inscritos/as.

- Kasu berezietan, ordainketa hilabeteetan zatikatuta egitea onar dezake Udalak, aurrez Kultura eta Kirol Arloko teknikariek txostena egin badute.

- En casos especiales, el Ayuntamiento, previo informe de los técnicos del Área de Cultura y Deportes, podrá aceptar el pago en fracciones mensuales.

Hobaria eskatzea eta ematea:

Solicitud y concesión de la bonificación:

Tarifan ezarritako hobariaz baliatzeko, baldintza hauek dituztela egiaztatu behar dituzte interesdunek:

Podrán beneficiarse de la bonificación establecida en la tarifa, aquellas personas que acrediten los siguientes requisitos:

- Eskola-kirolaren programan izena eman behar dute, Irungo Udalak jarritako baldintza eta prozeduren arabera.
- Dagokion ikasturtean zehar (irailetik maiatzaren bitarteko aldian) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun gisa azaldu behar dute.
- Ikasleak zein Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular onuradunak Irunen erroldatuta egon behar dute dagokion ikasturtean zehar (irailetik maiatzaren bitarteko aldian).

- Realizar la inscripción al programa de deporte escolar conforme a las condiciones y procedimientos habilitados por el Ayuntamiento de Irun.
- Figurar como beneficiario/a de ayuda de Renta de Garantía de Ingresos durante el curso escolar correspondiente (período comprendido entre septiembre y mayo).
- Tanto el alumno/a como el titular beneficiario/a de la ayuda RGI deberán estar empadronados/as en Irun durante el curso escolar correspondiente (período comprendido entre septiembre y mayo).

Salbuespen eskaera berariazko adierazpen baten bidez egin behar da, eskola-kirolaren programan izena emateko inprimakian ezarritakoaren arabera. Inskripzioa Irun Txartela erabiliz modu elektronikoa eginez gero, inskripzio prozeduran berariazko adierazpena eginez egin behar da eskaera.

La solicitud de exención se realizará mediante indicación expresa conforme a lo establecido en el formulario de inscripción al programa de deporte escolar. En el caso de realizar la inscripción vía electrónica mediante Irun Txartela, la solicitud se realizará mediante indicación expresa en el procedimiento de inscripción.

Nolanahi ere, interesdunak baimena eman behar dio Irungo Udalarari Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuraduna dela eta erroldatuta dagoela egiaztatzeko.

En todos los casos, el/la interesado/a, deberá autorizar al Ayuntamiento de Irun la verificación de la percepción de Renta de Garantía de Ingresos y empadronamiento.

Salbuespen-eskaera egiten duen pertsona

La persona beneficiaria solicitante de la exención

² 2018ko irailaren 1etik aurrera indarrean/ vigente a partir del 1 de septiembre de 2018.

onuradunak (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duenak) izena eman duen ikaslearen aita, ama edo tutore gisa azaldu behar du inskripzio-orrian.

Hobariaren onuradun izateko baldintzak egiaztatutakoan, Udalak www.irun.org weborrian argitaratuko du onartutakoan eta baztertutakoan zerrenda.

Onuradun suertatzen diren eskatzaileei ezarritako epeetan egingo zaie banku-kontuan hobaridun-kuotarako ezarritako prezioen kobrantza.

Kobrantza bakoitza gauzatu aurretik, baldintzak betetzen direla egiaztatuko da. Bigarren kobrantzaren aurretik salbuespenaren onuradun izateko egoerari dagokionez aldaketaren bat gertatu bada, titularra behartuta dago indarrean dagoen inskripzio-kuotaren zenbateko arrunta ordaintzera; eta kopuru hori kobratuko zaio inskripzio-prozesuan emandako kontutik.

(perceptora de RGI) deberá figurar en la hoja de inscripción como padre, madre o tutor/a del alumno/a inscrito/a.

Una vez verificadas las condiciones exigidas para resultar beneficiario/a de la bonificación, el Ayuntamiento publicará en la web www.irun.org la lista de estimados y desestimados.

A los solicitantes que resulten beneficiarios se les girará en la cuenta bancaria en los plazos fijados los precios establecidos para la cuota bonificada.

La verificación de cumplimiento de los requisitos se realizará antes de cada uno de los cobros. En el caso de que de cara al segundo cobro variaran las circunstancias que dieron lugar a la adquisición de beneficiario/a de la exención, el titular se obliga al abono de la cantidad ordinaria de la cuota de inscripción vigente, cantidad que le será girada a la cuenta suministrada en el proceso de inscripción.